

# Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

## Don Norbait

1999. URTEA IZANGO ZEN, udaberri partean. Donostiako Trinitate plazan kontzertua: Bide Ertzean eta... Etsaiak. Eta, egia aitortzeko, bigarren taldea ikustera joanak ginen batez ere. Besteaz ezer gutxi jakin, "Deabruak Teilatueta-ekoen talde berria" esan zuen lagun batek. Aurkeztu berria zuten lehen diskoa (oker ez banago) eta gau hartan (honetan ez nago oker) publikoak harrera hotz samarra egin zien. Abstraktuan ez hitz egiteko: genien. Eta zehatzago: nien.

Animalia kapritxosoa da gustua, baina denborarekin beti itzultzen da lehenago ibilitako bideetatik. Pazientzia izanez gero, bigarren aukera ematen dizu ehizatzeke. Hamaika urte beranduago karrerako soinu-banda bihurtua zitzaidan Bide Ertzean, ikusiak nituen zuzenean, baina inoiz ez Donostian. Eta Trinitate hurbil tokatu aukera, Victoria Eugenia antzokian, joan den asteko ostegunean.

Tolosarrek *Don Inorrez* diskoko kantekin hasi zuten saioa eta segituan konturatu ginen hura ez zela normalean ikusten ditugun kontzertuen antzekoa izango. Bazeukala beste zerbait. Eskenatokiak, atzeko pantailan proiektatutako irudiek, Imanol Ubedak akustikoa afinatu arteko tartetan erakutsi zuen *storyteller* gaitasunak... pelikula bat zirudien momentu batzuetan; aberastasun kromatikoa handiko ikuskizuna. *Zuk esan* jotzen hasi zirenean kasu, gorri bizi batek hartu zuen atzeko plano, musikariak itzal, Quentin Tarantinoren *Kill Bill*-eko eszena bat gogoraraziz.

Soinua ere txit ondo, kantetako ñabardura txikienez ohartzeko aukera eman zuen. Tontakeria dirudi, baina segun eta zein abestitan diferentzia marka deza. Adibidez, Gorka Urbizu *Ez dut atzera egingo* kantan agertokira gonbidatu zuten bigarren ahotsa egitera eta



XA2 / CC-BY-SA

Bide Ertzean *Leidor Sessions* zuzeneko diskoa grabatu zuten egunean.

perfektu entzun genuen Ubedaren atzeko planoan. Tamalez, iruditzen zait ez dela ohikoa euskal taldeen kontzertuetan horrelako baliabide teknikoak edukitzea; galdu egiten ditugu, kalitatezko aretoz aberats ez ibiltzeagatik, musikaren detaile asko.

Eta nabarmentzekoa Joserra Senperenak nola janzten duen lau taldekideen lana hammondarekin (batez ere) eta bestelako teklekin, psikodeliara hurbiltzen diren momentuak sortuz. Kontzertuaren "baina" bakarra, Xabier Leteren *Ni naiz*en bertsioa izan zela esango nuke. Oiartzuarrak ahots atormentatuz kantatzen zuen jatorrizko hura iltzatuegi daukadalako izango da, baina ez ninduen erabat konbentzitu Bide Ertzeanen bertsioak.

Gainontzean *chapeau: Hotel Bel-Air* edo *Badator eguna* bezalako kantak klasikoak dira dagoeneko (bide batez, oraingoan lehen kanta horretako koadroa Zumetarena izan zen, diskoa Deabruena) baina *Don Inorrez*ekoekin gustura ezkontzen dira zuzenean. Ez da harritzekoa. Joan den astean Victoria Eugenia ikusi genituen musikariak aspaldi irabazi zuten Don Norbait izena. ■

*Oxangoiti*  
Hotel Jauregia

Gamarra kalea, 2  
Lekeitio (Bizkaia)  
94 465 05 55 / 659 393 928  
www.oxangoiti.net

